



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2018ko ekaina · 340. alea

TOKIKOM



# Ibaiari begira bizi zen herria

CHURRUCA  
OLABARRIA



## AURKIBIDEA

- 4 Bote** prontuan Ramon Argarate eta Koldo Kareaga
- 6 Begira** Udate gaba
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 14 Argazki bidez** Giza katea
- 16 Erreportajea** Ibaiaren historia testigantzetan
- 22 Kirola** Soroluzetarrak saridun, Iñaki Ruiz Mendi Lasterketa
- 24 Kultura** *Iturrian zer dago?*, Musika-eskola, Abesbatza
- 26 Nondik nora** Ana Maria Bello eta Antonio Pichardo
- 27 Gure artistak** Amaia Amor
- 28 Sakonean** Danborrada
- 30 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

- 3 Neuretik** Xabier Iñurrieta *Mundu hobe bat*
- 16 Gutunak** Bittor Treviño
- 16 Hausnarketa** Esperientzia Gela
- 17 Puntua** Nagore Ruiz *900 karaktere*



**Pil-pilean**  
herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak:  
aldizkaria@pilpilean.eus • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze  
Telefonia 943 75 13 04

### Erredakzioa

Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno 605 706 086  
egoitz@pilpilean.eus

### Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus  
**Diseinua** Goiena,  
Oier Larreategi (moldaketak)  
**Azala** Jesus Txurruka

### Maketazioa

Oier Larreategi  
**Zuzentzailea** Leire Ginea  
**Inprimategia** Gertu Koop.  
**Banaketa**  
Pil-pilean Ekoizpena

### Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZETARRAK  
UDALA**

# Mundu hobe bat



*Xabier  
Iñurrieta*

Orain arte ezagutu gabekoa izan da aurtengo M-8ak lortu duen arrakasta. Generoen arteko parekotasun ezaren aurkako borroka aurpegi aurrean jarri digu feminismoak. Esango nuke ia ustekabean eratu den Espainiako Gobernu sozialista berriaren emakumeen kopurua ikusita, orduko aldarrikapena lehenego planoan jarri eta bete egin dela. Gerora ikusi beharko ditugu emaitzak, hasiera behintzat ezin hobe iruditzen zait.

Baina kale mailan, ordea, egunero dugu emakumeen aurkako ekintzen berri. Sonatuenak indarkeriarekin zerikusia dutenak dira, baina bestelakoak ere ugari ditugu, lan berdina izanda

**“Kale mailan egunero dugu emakumeen aurkako ekintzen berri”**

soldata murriztagoa izatea, eta abar... Abar oso luze bat, zerrenda bukaezina izango litzake.

Horren harira, aspaldiko istorioa kontatuko dizuet. Israelgo Lehen Ministroa izatera heldu zen Golda Meir emakumea du protagonista. 70. hamarkadaren hasieran

Israelgo hiri baten hainbat emakume bortxatuak izan ziren epe motz batean. Bildu zen arazoa konpontzea zegokion arduradun politiko talde bat, tartean gure Golda zela, eta bortxaketak ilundu eta gero izan zirenez, erabaki zuten etxeratze-agindua, hau da, “toque de queda” delakoa, ezartzea. Orduan, Goldak esan zuen: “Etxeratze-agindua gizonezkoentzako bakarrrik izango da, ezta?. Denak berari begira gelditu omen ziren harridura aurpegiarekin. Eta Goldak berriz: “Nortzuk uste duzue direla bortxatzaileak, emakumeak akaso?”.

Mentalitate horrek irauten du eta argi dago genero ikuspegia erabili behar dugula. Gizonok parte izan behar dugu arazoaren konponbidean, eta emakumezkoen alboan egin bidaia. Edo gure burmuinen zati bati etxeratze-agindua ezarri beharko diete! Posible balitz...

# Ramon Argarate eta Koldo Kareaga

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Soraluzeko Harrera elkartearen arduradunak dira Ramon Argarate eta Koldo Kareaga preso ohia. Harrera 2012an sortutako elkartea da, preso, iheslari eta deportatu izan diren pertsonen "jendartean egokitu eta euren bizitza berria duintasunez bitzitzen laguntzea helburu duena".

## Zerk bultzatu zuen Harrera elkartearen sorrera?

Kasu oso larriak gertatu ziren. Villabonako preso ohi bat topatu zuten kamioi baten kartoletan hilda eta jakin genuen Bilboko beste lagun bat kalean eskean zebilela, buruko arazoan eraginez. Argi ikusi genuen horrela ezin genuela jarraitu, zerbait egin beharra zegoela, baina, garai hartan, konplikatu zen.

## Gaur egun zela dago osatua Harrera?

Elkarteak 3.000 bazkide inguru ditu, eta bazkide bakoitzak urtero 60 eurotik gorako kuota bat ordaintzen du. Aurrekontuaren %95a bazkideen ekarpenekin eta donazioekin finantzatzen da. Laguntzaile sare zabala osatu dugu eta sare horretan daude enpresariak, medikuak, dentistak, psikologoak... Denetarik dago. Esaterako, badago herrian pertsona bat etxebizitza bat eskaini duena.

## Zeintzuk izaten dira beharizanik ohikoenak?

Osasun zerbitzuak ordaindu ezina, lanpostu falta, autoaren gidabaimenik ez izatea, behar ekonomikoa... Elkarteak diru-laguntza ematen die, edo lana bilatzen laguntzen die. 2017an 100 pertsonari eman zitzaizen laguntzaren bat.

Gartzelan edo erbestean urte asko eman dituenak bizitza berregin behar izaten du eta hori beti ez da erraza izaten.

## Zer baldintza bete behar dira Harreraren laguntza jasotzeko?

Baldintza bakarra dago laguntza eskatzeko, Espainiako edo Frantziako estatuekin izandako arazoaren baten ondorioz kaltetua izatea. Berdin dio ETA pm-koa edo m-koa izan zaren, edo Nanclares bidekoa, edo beste edozein ildotakoa.

## Laguntza publikorik ez dago?

Orain dela bi urte gartzelatik atera osteko subsidioa kendu zieten ETako presoek, damutzen ez zirelako. Neurria auzitegiataro eroran zen eta irabazi egin da. Orain subsidioa kobratzen dute 18 hilabetez, hilean 400 euro inguru, eta ahal bada RGI-tik osagarri bat.

## Jaurilaritzak aipatzen du jarrera kritikoa beharrezkoa litzatekeela bergizarteratzeko programen onuradun izateko.

Harrera ez da horretan sartzen. Norbaitek, dena delako baldintzetan laguntza hori jasotzeko modua izaten badu, fenomeno, lagundu beharreko bat gutxiago izango dugulako.

## Baduzue itxaropenik etorkizunean laguntza publiko handiagoa izateko?

Irlandan akordio bitartez amaitu zen gatazka eta bergizarteratzeko laguntzak hitzartu egin ziren. Hemen ez da halakorik izan. Beharbada, gauzak hobera egiten badute, noizbait izango dira kalte ordainak torturapean edo kondenatu gabe gartzela urteak egin behar izan dituztenentzako...

## Maiatzean Guardia Zibilak hirurogei preso ohien ondasunak bahitzeko operazioa burutu zuen, eta aipatu dutenez bahitutakoa biktimei kalte ordainak ordaintzeko erabiliko da.

Hori ezin liteke horrela izan, ze estatuak dagoeneko ordainduak ditu kalte ordain horiek. Biktimek hamabost urte izaten zituzten preskribitu aurretik erreklamazioa egiteko eta ez da horrelakorik izan. Are gehiago, PPreneko gobernua bost urtera jaitsi zuen epe hori, bere korrupzio kasuak ateratzen hasi zirenean.

Esan dute operazio horretan 8 milioi euro jaso zituztela, eta hori gezurra da. Zela izango dute lagun horiek horrelako dirutza?

## Peio Etxeberria plazentziatarrari ere bahitu dizkiote ondasunak.

Bai. Kontu korrontean zuen dirua bahitu diote eta hilero nominaren zati bat kentzen diote. Ez du ez hanka eta ez buru, izan ere Peio Auzitegi Nazionalaren preskripzio agiria du. Gainera, ez dago epaitegi konkretu bat tartean. Inork ezagutzen ez duen epaitegi bateko idazkariak sinatutako paperak dira.

Abokatuek diote epaiak irabaziko direla eta konfiskatutakoa itzuli beharko dutela, baina noiz? Igual pasatuko dira zazpi edo zortzi urte.

## Zela begiraten diozue etorkizunari?

Itxaropenez, ematen diren pausoak hobeko izango direlakoan. Etorkizunean preso gehiago geldituko dira aske eta beharrak handitu egingo dira. Hori dela eta, herritarren laguntza handiagoa beharko dugu, bazkide gehiago.



**“Gartzelan edo  
erbestean urte  
asko eman  
dituenak bizitza  
berregin behar  
izaten du eta hori  
ez da beti erraza  
izaten”**



## Sua

ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**  
 TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Urteko gaurik motzena izan zen joan zen zapatukoa eta, urtero moduan, herritar mordoa batu zen suaren bueltan antolatutako jaira. Izan ziren koplak, dantzak, edabe majikoa; eta guztietan garrantzitsuena zen osagaia, sua.

Badu zer edo zer magikoa suak, denok erakarri eta txunditzen gaituena. Galdetu, bestela, zapatu gauean bere gainetik behin eta berriz saltoka jardun zuten gaztetxoei (eta ez hain gaztetxoei).

Horra hor ohitura zahar eta zoragarria, merkea eta gozagarria, adin guztietako herritarrak elkarrekin herriko plazan batzeko ahalmena duena. Ez al da ederra?

Gora udate gaueko sua eta uda on denoi!



# Errebal kaleko 14. eta 16. etxeak abuztuan botatzen ahaleginduko dira

Uztailaren 11n bukatuko da Errebal kaleko obren lehiaketara aurkezteko epea. Edozein modutan, obrak ez dituzte hasiko jaiak pasatu arte.

162.000 euroko aurrekontua (BEZ barne) dute obrek. Kalearen 12. ataritik 29. atarirainoko (Gaztelupe taberna) tartean egingo dira lanok, bost hilabeteko epea aurreikusita. Eta hainbat jarduera egingo dituzte Errebal kalearen zati horretan.

Batetik, errepidea eta espaloia plataforma bakarrean ipiniko dute (erdigunean modura). Horrela nahi diote konponbidea eman 12. atariaren aurreko aldeko eta Gaztelupe taberna pareko espaloiei, larregiko estuak dira-eta. Bestetik, Zubi Nagusiko piboteak lekuz aldatuko dituzte, gaur egun autoak bertan txarto aparkatuta egoten direnez, hori saihesteko.

## Obra konplikatua

Horrekin batera, Errebal kaleko 14. eta 16. etxeak bota egingo dituzte. Aurreikuspena da abuztua aprobetxatzea eraiste lanak egiteko, ze hiruzpalau egun behar dira, eraisketa lanak egiteko. Eta etxeok bota bitartean, errepideak, bai ala bai, itxita egon behar du. Era berean,



Botako dituzten bi etxeak oso egoera txarrean daude.

behin etxeak botata, ahaleginduko dira, 14 eta 16. atariaren pareko espaloia ahal den eta zabalerarik handiena ematen. Edozein modutan, bi etxeok pribatuak dira, eta behin etxeak botata, bertan berriak eraikitze eskubidea dute lurren jabeek. Asko jota, hori bai, behea gehi hiru solairu da balizko etxe berriek izan ditzaketen gehiegizko altura.

Bukatzeke, lur azpiko zerbitzuak zaharberritu egingo dituzte. “Obra konplikatua da; gauzatzeko bost hilabete aurreikusten dira, baina seguru aski luzatu egingo da, ze lur

azpian zerbitzu asko daude eta kalea jaso arte, ez dakigu zehat zein den haien egoera. Adibidez, Ur Partzuergoarekin elkarlanean, euri-urak eta ur zikinak banandu egingo ditugu, Gabolatsen modura. Gainera, behin kalea jasota da momentua zerbitzu horiek guztiak zaharberritzeko”, esan du alkateak.

Obra konplikatua da, halaber, zirkulazioa ere berrantolatu egin beharko delako denboraldi handi batean, behintzat. Datak gerturatu ahala jakinaraziko dute nondik bideratuko duten, bada, herri barruko zirkulazioa.

## Iker Aldazabal berriro ere alkategai

Soraluzeko Uri Buru Batzarrak Iker Aldazabal, 2015etik Soraluzeko alkate dena, aukeratu du datozen Udal hauteskundeetan EAJ-PNV alderdiko zerrendaburu izan dadin; beraz, 2019-2022ko legealdirako alkategaia izango da Aldazabal.

Gustura hartu du hark izendapena: “Behin alkate izanda, ahal bada, tokatzen da jarraipena ematea hasitako lanei. Lau urte bizkor pasatzen dira, eta normalean denbora gehiago behar izaten da martxan dauden edo garatu gabe



Iker Aldazabal alkatea bulegoan.

dauden proiektuak garatzeko. Konpromisoa hartzen dut, neure aldetik, beste lau urterako soraluzetarren eta herriaren alde lan egiteko”.

## Bosgarren legealdia

41 urte ditu Iker Aldazabalek, eta politikan diharduen 4. legealdia du oraingo hau. Gazte, 26 urte zituela, hasi zen politikagintzan, 2003an, zinetotzi modura hasi ere. 2019-2022. legealdia bosgarrena izango du, hortaz, politikari eskainitakoa.



# “Pertsonen zoriontasunean eragin dezake Hirigintzak”



Aitor Jauregi Larrañaga (bigarren abizena beti aipatzen du) aparejadorearen bulegoan.

Aitor Jauregi Larrañaga (Beasain 1973) da Soraluzeko aparejadore berria. Beasaindarrak hartu du zoritzarrez hil egin zen Naia Olaizolaren lekua. Hainbat lanpostu desberdinetan aritu ondoren iritsi da Soraluzeko Udalera, orain dela lau urte egindako azterketa bati esker.

## Orain arte zertan jardun duzu?

Lan egin dut Jaurlaritzako diru-laguntza batzuen kudeaketan; arkitektoen ardurua zibila estaltzen duen aseguru etxean; irisgarritasun planak egiten Bilbon; ondoren autonomo, baina autonomoen bizitza zaila izanda, oposizioetarako azterketak egiten hasi nintzen orain lau urte, eta azken zazpi hilabetetan Etxepare institutuan ibili naiz; hura bukatzean deitu zidaten hemendik.

## Soraluze ezagutzen zenuen?

Gutxi, egia esan. Ama kostaldekoa dut, eta oporrak pasatzera-eta hara joaten ginen. Garai hartan Bergaresa hartzen genuen Eibarrera eta hemendik pasatu behar izaten genuen. Gogoan dut *ze pitote* muntatzen ziren autobusak parez pare beste ibilgailuren batekin topo egiten zuenean. Baina bestela, Soraluze ez nuen ezagutzen.

## Ze ikasketa dituzu?

Arkitektoa naiz. Donostian ikasi nuen eta urtebete aritu nintzen Italian Erasmus. Hirigintzara bideratuta IVAPeko Hirigintza Diplomaduna naiz, eta badut graduondoko bat Lurralde eta Hizkuntzaren inguruan egindakoa, iaz lehen aldiz UEUk eta EHUK elkarlanean sortuta; Udal Legeak dioelako udaletan onartuko diren plan eta programa guztiek euskararengan zer eragin izan dezaketen aztertu behar dela, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak proposatu behar direla. **Zela ikusten duzu lanpostu berria?** Zoratu samar nabil, baina denbora kontua izango da esku-hartzea. Hala ere gogotsu eta ilusioz nago, eta pazientzia pixka bat eskatuko nuke, ahal den eta ondoen egiten saiatuko gara. Bestalde, Soraluze ez da herri erraza, bailara estu-estuan zaudetelako, eta horrek zaildu egiten ditu gauzak.

## Zela deskribatuko luke Aitor Jauregi Larrañagak bere burua?

Naiz pertsona bat sinesten duena Hirigintzak eragin dezakeela pertsonen zoriontasunean. Horregatik gustatzen zait lan hau, lagundu dezakeelako jendearen zoriontasunean.

## Auzolana, Mutxanen

Uztailaren 1ean, domeka, Mendi Taldearekin elkarlanean, Sagarrerrekako putzurako ibilbidea txukuntzeko auzolanerako deia egin du Udalak. 09:00etan Zubi Nagusitik abiatuko dira: “Urteetan botatako zabor eta zikin ugari daude; asmoa da haiek kendu eta ingurua txukun lagatzea, Sagarrerrekako putzurako bidea itxuratuta egon dadin, erabiltzeko gertu”, esplikatu du alkateak. “Horrekin batera, inguru hura ezagutarazteko ere balio du irteerak, askok ez dute-eta ezagutzen”, gaineratu du. Laguntzera joaten direnei mokadutxoa emango diete Kukupen.

## Euskararekiko konpromisoa

Soraluzeko Udalak eta herriko 13 elkartek *Gure elkartean be euskaraz bai* hitzarmena berritu dute. Haren helburua da elkarreetan, eguneroko jardunean (aktak idazterakoan, bileretan, inprimakietan, errotuluetan...) euskararen presentzia handitzea, elkarreak berak modu boluntarioan hartzen dituen konpromisoak landuta. Aurten bost elkarte gehitu dira hitzarmenera; horrenbestez, 13 dira gaur egun Soraluzeko Udalarekin hitzarmen hori duten elkarreak. Udalak proiektua garatu ahal izateko laguntza teknikoa eskaintzen die elkarteei, egitasmoaren koordinazioa, hizkuntza aholkularitza, itzulpenak eta euskarazko material informatikoa, hain zuzen ere. Proiektuaren koordinazioaz Pil-pilean Euskara Elkarte arduratzen da.

# Irailaren 1ean abiaraziko dute esperientzia gela



Erretiratuak Esperientzia Gelaren aurkezpen ekitaldian.

Adineko pertsoneri “parte hartzeko, integratzeko, askeago sentitzeko, beren iritzia emateko eta erabakiak hartzeko” gunea eskaini nahian, irailaren 1ean abiatuko da esperientzia gela Sorraluzen.

Tailerrak, hitzaldiak, zine-forumak eta mahai-inguruak antolatuko dituzte, adinekoen interesekoak izan daitezkeen gaiekin. Hain justu, maiatzaren 31ra bitartean hilero halako saio bat eskainiko dute, Itxaropena jubilatuen elkarteko hitzaldi aretoan.

Matrikula dohainik da eta uztailaren 1etik irailaren 20ra bitartean egin daiteke udaletxean edo erretiratuen egoitzan inskripzio orriak beteta. Informazio gehiago nahi izanez gero, Alkarri elkarteko Juan Fernandezi dei dakiok: 622 72 55 57.

Ekainaren 21ean aurkeztu zuten esperientzia gela eta ekimenak interes handia piztu zuen adinekoen artean. Aurkezpena berrogei lagun inguru bertaratu ziren.

Patricia Borinaga zinegotziak eta Juan Fernandez Alkarri Elkarteko ordezkariak azaldu zituzten ekimenaren nondik norakoak. Izan ere, ekimena Udaleko Gizarte Ongizate sailaren ekimenez abiatu

da, Mesedeetako Amaren Egoitza, Eguneko Zentroa, Itxaropena eta Alkarri Elkartearekin batera. Azken horrek, Alkarri Elkarteak, izango du ekimena koordinatzearen ardura.

## SAIOAK

Egingo dituzten saioei dagokienez, berriz, adin nagusiko pertsonak ahalduzko taldeak aukeratu ditu gaiak :

- Iraila: Alzheimer zine-foruma.
- Urria: Memoria tailerra “Lo tengo en la punta de la lengua” eta mahai inguruua “Nagusi”.
- Azaroa: Emozioen tailerra “Construyendo un futuro en positivo”
- Abendua: Zine-foruma Bakardadea
- Urtarrila: Internet, mugikor eta sare sozialen tailerra
- Otsaila: Internet, mugikor eta sare sozialen tailerra; Euskarax programa
- Martxo: Euskarax programa
- Apirila: Pertsona nagusien III. Astea
- Maiatza: Sukaldaritza, zaporea, historia II tailerra.

## Bularreko minbizia

Ekainean egingo da bularreko minbiziari aurrea hartzeko bi urtean behin egiten den azterketa; minbizi mota hori da Euskadin emakume gehien hiltzen dituen gaixotasuna. Kanpaina hori bi urtean behin egiten da, eta 50 eta 69 urte bitarteko emakumeei zuzenduta dago, edo familian bularreko minbiziak jotako amaren, ahizparen, alabaren, anaiaaren edo semearen bat duten 40 eta 49 urte bitartekoei. Azterketa egiteko hitzordua eskutitz bitartez jasoko du dagokionak, lekua eta ordua ere bertan zehaztuta.

## 77 herritarrek parte hartu dute IGO egitasmoan

Irakurri, Gozatu eta Oparitu XII. edizioa bukatu da. Maiatzaren 31n liburutegian eta ekainaren 15ean, berriz, liburu dendatan. Euskarazko irakurzaletasuna eta euskal literatura sustatzea helburu duen egitasmoak arrakasta izan du; iza ere, 77 herritarrek parte hartu du egitasmoan (23 helduk eta 41 umek) eta banatu diren erosketa txeekean %80 erabili da ekimenean parte hartu duten herriko liburudendetan (Iratxon eta Estankoa). Horrekin batera, hainbat literatura-emanaldiz gozatzeko aukera izan da: Porto ume, familiakide eta lagunendako. Eta Porto ikuskizuna, kantua eta spoken poetry generoak nahastuta, Maite Arroitauregi Mursegok eta Harkaitz Canok elkarlanean prestatutako ikuskizun hordigarria, helduei zuzendutakoa.

# Jaietako txupinazoa kanoiarekin botako da



Tio Teronen Semeak Arrasaten egindako ikuskizunean.

Santiago egunean, uztailaren 25ean, hasiko dira aurten herriko jaiak eta uztailaren 28an, zapatuan, bukatu. Aurten, txupinazo bereziarekin abiaraziko dituzte jaiak: danborradako kanoia erabiliko dute jaien hasiera iragartzeko, 19:00etan, udaletxeko kontzejupetik. Euskaraldirako Soraluzeko hamaikakoa arduratuko da “kainonazoa” botatzeaz.

Iazko aurrekontu berberarekin (68.500 euro, Andra Mari jaiak barne) ohiko ikuskizunak eta berriak uztartuko ditu jaietako egitarauak. Aurrerapen modura,

egunean Golden Apple Quartet musika-talde umoristikoa izango da eta zapatuan Tio Teronen Semeak dantza ikuskizuna. Ohiko ekitaldien artean, berriz, kale egin barik taularatuko dute aurten ere herri-ikuskizuna, hildako musikariaren kantuekin; eta nagusien danborradak ere eutsiko dio aurtengo hitzorduari. Bestalde, frontoia DJ-en topaleku bilakatuko da *Gune Musik* kolektiboaren eskutik.

Soraluzeko Udalak, Galtzagorriek eta *Gune Musik* taldeek osatu dute aurten jaietako batzordea.

## Edateko urari fluorra kentzen dabilta

Agenda 21 egitasmoaren baitako osoko bilkuran, Institutuko ikasleek, besteak beste, edateko urari gehitzen dioten fluoraren gaineko kezka helarazi zioten alkateari. Hark, berriz, konpromisoa hartu zuen Ur Kontsorzioari kezka helarazteko, eta jakinarazi du horrela egin duela: “Ekainaren 1ean izan genuen Ur Kontsorzioaren Batzar Nagusia eta galdera egin nien. Iñigo Elosegik, Ur Kontsorzioko gerenteak, komentatu zidan bere garaian gaia aztertzen ibili zirela EHUk antolatutako udako ikastaro batzuetan. Hango adituen ustez, fluorak ez ditu uste ziren onurak. Osakidetzako adituek ere zalantzan jartzen zituzten fluorra erabiltzearen onurak. Alde azaldu zen aditu bakarra dentisten ordezkaria izan zen. Hori horrela, kontsorzioak erabaki zuen urtetik urtera uretara botatzen zen fluor kopurua murrizten joatea desagerrarazi arte”, hala azaldu du Iker Aldazabalek.

## Agintarien bisita

Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat agintari Soraluzen izan dira ekainean. Lehenak Olaldeako Plan Berezia oinarri, auzo hura ikustera joan ziren, udal ordezkariak lagunduta. Asmoa da Jaurlaritzarekin elkarlana bideratzea plan berezian aurreikusitakoak gauzatzen laguntzeko. Diputazioko ordezkariak, berriz, *Aurrekontu Irekiak* ekimenaren baitan bertaratu ziren udalerrira, herritarren ekarpenak jasotzera.

## Lorerik ederrenak

Imiela Jesus Mateo Ramosen (Fatima) eta Maria Lourdes Vazquez Barrenetxearen balkoiak saritu zituzten Leiho eta Balkoietakoko III. Lore Lehiaketan; 150 euroko saria eskuratu zuen lehenak, eta 75 eurokoa bigarrenak. Fatima Mateok poz handiarekin hartu zuen saria: “Oso-oso pozik nago; zerbait irabazten dudan lehen aldia da!”. Maria Lourdes Vazquezek, berriz, lehen bi edizioak irabazi ondoren, bigarren saria eskuratu zuen.



Fatima Mateo lorez betetako balkoian.

# Aurten ere ganadu, barazki eta erreminta azoka San Andresko jaietan



Baserritarrak eta bisitariak iaz lehen aldiz egin zen azokan.

Lau eguneko egitarau mardula prestatu dute San Andresko jaietarako.

Nabarmentzeko modukoa da zapatuan egingo duten azoka. Denetik izango da ikusgai: “Osumagain baserrikoek landareak eta senda-belarrak; Kortak arotzeriako erremintak; Etxebarri baserrikoek loreak eramango dituzte eta etxeko tresnak eta bestelako tramankuluren bat edo beste (artoa ehotzekoa...). Bestalde, animalien postuak jarriko dituzte Obe, Barrenetxe, Itsasoi, Arizaga, Uskate eta Osuma baserrikoek, horiek behiak eta txahalak eramango dituzte. Zabaletak eta Iriarte-gain baserriek, berriz, ardiak eramango dituzte; Goenetxetxokoek astoa astakumearekin eta muntako behorra eta Osintxuko Kakua anaiek eta Osumazpik pottokak. Horrez gain, Osumazpikokoek gozogintzako produktuak ere eramango dituzte; Barrenetxekoek hegaztiak eta txerriak, eta Arizagakoek baserriko ortuariak, ogia eta baserriko produktuak.

## Umeendako irteera eta tailerrak

Azoka egunean, gainera, herriko umeak bertaratzeko irteera antolatu

du Soraluzeko Mendi Taldeko Ume eta Guraso Taldeak. 09:00etan Plaza Berrian elkartu eta joango dira oinez San Andresera (Olatik Txurrukazpira eta handik San Andresera). Bidean sendabelarrak batuko dituzte eta San Andresen Esteban Laskurainek erakutsiko die bakoitza zer den, zertarako, zela erabiltzen den...”

Horrekin batera, umeek aukera izango dute landaketa eta talogintza tailerretan parte hartzeko. Gainera, jolasak egingo dituzte baserri mundua eta erremintak-eta ezagutzeko”.

Zapatu arratsaldean, berriz, Asierren eta Iñakiren Omenezko Pilota Txapelketako finala jokatuko dute. Ostean herri-afaria egingo dute, eta gauean erromeria, Ansozregi, Larrañaga eta Lutxurdiorekin.

## Domekan, kirolak nagusi

Domekan kirolak izango dira nagusi: Iñaki Ruizen omenezko lasterketaz aparte, emakumezkoen pilota partiduak izango dira, eta bailarako harri-jasotzaile saria jokatuko dute: Mikel Lopetegi Urrak, Gorka Etxeberriak, Josetxo Urrutiak eta Imanol Albizu Goikoetxek. Bola txapelketa ere izango da, jakina, San Andres auzoko bolatokian.

## EGITARAUA

### Uztailak 6, barixakua

- Makala tentetu eta txorixo probatzea.

### Uztailak 7, zapatua

- 10:00etan Ganadu, barazki eta erreminta azoka.
- Mañukorta eta Telleria bertsolariak eta Argateburu eta Mendotz trikitilariak.
- Txarrikumeak erreko dira parrilean.
- 19:00etan Pelota Txapelketako finala.
- 21:00etan Herri-afaria. Ostean, erromeria Ansozregi, Larrañaga eta Lutxurdiorekin.

### Uztailak 8, domeka

- 10:00etan Iñaki Ruizen Omenezko VII. Mendi Lasterketa.
- 12:30ean Meza.
- 13:00etan Mendiluze eta Laburu bertsolariak.
- 13:30ean Emakumezkoen pilota partiduak.
- 18:30ean Bailarako harrijasotzaile saria.
- 19:00etan Bergarako zezentxo eta poniak.
- 19:30ean Bola txapelketa.

### Uztailak 9, astelehena

- 12:30ean Meza, auzoan hildakoen alde.
- 13:00etan Umeendako jolasak.
- 13:30ean Emakumezkoen bola txapelketa.
- 14:30ean Auzotarren bazkaria frontoian.
- Bazkal ostean, Lizaso eta Egaña bertsolariak.
- Dantzaldia Lutxurdio eta Laja gaztearekin, Laja nagusiaren omenez.

## Euskaraldia bailaran



Euskaraldian parte hartuko duten Debabarreneko udalerrri guztietako ordezkariak, Deban.

Debabarreneko 80 lagun batu ziren atzo, eguena, Debako Zubi Zaharrean Euskaraldia bailaran elkarrekin egingo dutela azaltzeko. Izan ere, Debabarreneko herri guztietan Euskaraldia prestatzeko lanetan dihardute, herritarrek eta erakundeak elkarrekin. Hori horrela, Deba bailara oso-osoak parte hartuko du: Leintz-Gatzagan hasi eta Mutrikuraino.

Debabarrenean, ezagutzari dagokionez, %58,6 dira euskaldunak, %20,8 ia-euskaldunak eta %20,5 erdaldunak. Orduan, 10etik 8k

euskaraz ulertzen du eta 10etik 6k euskaraz aritzeko gaitasuna dauka. Euskaraldia ariketa praktikoa izango da, hizkuntza ohiturei astindua eman eta euskararen erabilerari bultzada emateko: *ahobiziak* eta *belarriprestak* aktibatu, prestatu eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra, *ahobiziek* euskara ulertzen dutenekin euskaraz egingo dute, baita ezezagunekin lehen hitza, gutxienez, ere. *Belarriprestek* berriz, dakitenei euskaraz egiteko gonbita egingo diete, eurekin euskaraz egiteko eskatuko diete, nahiz eta *belarriprestek* erdaraz erantzun.

## Lau urterako elkarlana hitzartuta



Soraluzeko Udalak eta Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak lau urterako hitzarmena sinatu zuten, elkarrekin euskararen eta euskal kulturaren alde aurrera eramaten dituen egitasmoak finantzatzeko aldera.

Hitzarmena sinatu zuten Iker Aldazabal alkateak eta Pil-pilean elkarteko lehendakari Arianne Unamunok.

Hain justu ere, haren helburua da Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak kudeatuko eta antolatuko dituen egitasmo eta jardueretarako diru-laguntzak zehaztea.

### Ekintza ugari

Hitzarmena 2018ko urtarrilaren lehen hasi eta 2021eko abenduaren 31n amaituko da. Eta ondorengo jarduerak finantzatzeko dituzten Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) jasotako hainbat ekintzen kudeaketa; udaleku irekien kudeaketa eta Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak gauzatzen dituen beste hainbat egitasmo eta ekintza (Pil-pilean hilabetekaria, *Plaentxia* eus webgunea, Udate gaba, Olentzero eta Mari Domingi...). Ekintza horiek guztiak egiteko 74.525 euro emango dizkio Udalak Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteari.

## Jaietako kartelik onenak



Aurtengo kartel lehiaketako irabazleak Iker Aldazabal alkatearekin, sariak jaso ondoren..

Erakusketa aretoa lepo zegoela jaietako kartel lehiaketako sei irabazleei sariak eman zizkien Iker Aldazabal alkateak ekainaren 15ean. Kartel irabazlea (Ander Azkonarena)

jaietako egitarauan ipiniko dute. Gainontzeko irabazleak, berriz, honakoak izan ziren: Uxue Esnaola, Latif Ur, Malen Ugalde, Maria Hernandez eta Alba Rico.

# Plazentziatarren eskuak

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI ETA UBANE MADERA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Ekainaren 10ean, 420 plazentziatarren eskuak lotu zitzaizkien elkarri Elgoibarren. Besoak ongi luzatuta bada ere, osatu zuten Bilbo, Donostia eta Gasteiz batu zituen giza katearen 67. kilometroa, gainerako ibilbidea bete zuten 175.000 euskal herritarrenekin batera. Jendetza, aldarrikapena eta giro bikaina.

Aldarrikapen hori eremu politikora bideratzeko asmoa du orain erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimenduak, dagokionak eskubidea gauzatzeko bitartekoak jar ditzan.

Spotak dioen moduan, "etorkizuna dugu irabazteko!"





## Ez, nire izenean, Iker

Duela gutxi zure ahotik honako esaldi hau irakurri dut: “konpromisoa hartzen dut, beste lau urterako, soraluzetarron eta herriaren alde lan egiteko”. Bai?, eta alkatea ez bazara ere? Badakizu azken hauteskundeetan zure alderdiaren aurretik beste talde batek boto gehiago izan zituela? Politikan sarriegi suertatzen diren interesengatik, zu zeu zara alkate gaur egun.

Ez daukat zalantzarik aurreko alkatetzak hankasartzeak izan zituela. Baina, inportanteena zera izan zen: alkatetzatik gonbidatzen gintuzten herritarrok erabakiak hartzera. Zu ere bilera haietako partaide izaten zinen eta bizi egin zenuen erabakiak nola hartzen ziren. Gogoratzen zara?

Orain metodo hari buelta eman eta goitik beherako erabakiak bultzatzen dira. Adibide bezala, duela gutxi Diputazioak Plaza

Berrixan jarritako karpa izan da, non herritarroi galdetzen ziguten ea zer hobetu zitekeen herrian. Barka nazatela haurrek, baina infatilismoz beteriko proposamen negargarria iruditu zitzaizkidan.

Politikan aspalditik zaude eta aurrerantzean ere badirudi politika jotzen duzula ogibidetzat. Politikaria izatearen apostua eginda daukazu, horrek esan nahi duen guztiarekin. Eta ez naiz ni izango aukeraketa hori kritikatu duena, baina hortik bizi nahi baduzu, jakin beharko duzu herritar xumeen kritikak entzuten jakin beharko duzula.

Herritarren alde egingo duzula esan duzu, badakizu zer pentsatzen duten herritar askok zure soldatari zuk zeuk jarritako kantitateari buruz? Zergatik ez duzu galdetzen?

Edozein politikori eskatu beharreko gutxiengoak zuri eskatzeko beta hartuko dut. Badakizu Soraluze dela langabezi tasari dagokionez rankingean lehenengoetako postuetan dagoen herria, ezta? Baduzu proposamenik

aldaketa estrukturalak bultzatzeko edo, besterik ez bada, ahaleginak egiteko? Asmorik baduzu egoera horri buelta emateko?

Erronka ez da erraza, jakina. Baina herriak bizi duen egoera oso serioa da. Marjinazio guneak sortzen ari dira eta pobrezia nabarmenago ikusten dugu begien aurrean egunetik egunera. Ez duzu uste, denon artean helduko beharko geniokeela herrian bizi dugun egoera larri horri?

**Bittor Treviño**

[aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)  
[helbidera bidali gutunak](#)

### HAUSNARKETA

## Esperientzia Gela

Datorren ikasturtean jarriko dute martxan adinekoentzako egitasmoa. Zer diote interesatuek?



**Araceli Maiztegi**

Ni animatuko naiz. Pentsatzen dut saio horiek onak izango direla jendearekin tratatzeko eta lagunak egiteko. Beti ikasten da zeozer. Nik, asko irakurtzen dut eta konturatzen naiz laguntzen didala burua aktibo izaten. Pentsatzen dut beste askok ere berdina pentsatuko dutela. Gizonezkoak etortzen dira gutxi.



**Jose Luis Perez**

Nik badut intentzioa izena emateko. Memoria eta teknologia lantzen duten saioak interesatzen zaizkit gehien. Jendea gogoz dago eta apuntatuko da, baina nik faltan botatzen dudana da duela gutxi jubilatu den jendea, duten formazioarekin paso egitea, ez dut ulertzen.





Egilea: P.G.



**Mariaje  
Arribas**

Hasierako ideia Eibartik etorri da, hango eskolan parte hartu zuen herritar batengandik. Interesgarria iruditu zaigu hemen egitea eta udala laguntzeko prest dagoenez, aurrera egin dugu. Nagusien Astean jende askok parte hartu zuen eta horrek gogoia piztu du. Nik izena emango dut. Pentsatzen dut asko ikasi dezakegula. Gure adinean komeni da burua aktibo izatea.



**Sergio  
Zabala**

Baserria, umeak eta jubilatuetako lanak ditut eta ez daukat astirik. Ez dut izenik emango. Beharbada, whatsapp eta ordenadora erabiltzen ikasteko saioetara edo Alzheimerraren hitzaldira joango naiz, kontu horiek ezagutzea komeni da eta.




**Nagore  
Ruiz**

## 900 karaktere

900 karaktere, iritzi zutabe bat. Baina, zein gairi heldu? Azken hileko erreposoa egiten jarri naiz: Altsasukoak barruan, eta La Manadakoak aske. “Justizia mozkortuta dagoen pikoloaren bandoan jartzen da beti” dio txio batek. Asparrenan beste emakume bat erailda. Mediterraneo hilotzak irensten. Tarteka bada arnas-gunerik, marea berdea Argentinan. Aquarius.

June Fernandezi irakurri diot, militante feministek interneten jasaten duten jazarpenaz, hainbeste bideregakeria jasateko gai ez garenez, biolentzia batzuk normalizatzeko beharra dugula, babes mekanismo gisa. Ezin baitugu hainbeste haserre, hainbeste samin kudeatu. Gehiago esango nuke, biolentziak hierarkizatzen ditugu. Nola erabakitzen dugu, zerekin asaldata eta zerekin ez? Noiz mobilizatu eta noiz ez? Zeri ematen diogu lehenasuna?

Bada, gaurkoan hitz xume hauek gobernu, sindikatu eta oro har gizartearen indiferentziak Huelvako marrubi ustiapen landetan esplotatu, iraindu eta bortxatu dituzten emakume horientzat.



Olako Osiña bainuleku estimatua zen herrian eta herritik kanpo. Grabatuaren egilea: Jesus Txurruka.

ERREPORTAJEA

# Ibaiaren historia testigantzetan

Alkarrekineko Mendiak eta ibaiak lan taldearen ekimenez, *Plazentziatarren ibaixa, garbi zegoeneko testigantzak* ikusentzunezkoa ekoitzi dute Tere Guenetxeak eta Leire Gineak. Uztailaren 13an proiektatuko dute antzokian.

ARGAZKIAK: **FERNAN OREGI ETA EGOITZ UNAMUNO** TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Jendearen oroitzenetan aztarka eginez, ibaia garbi zegoen garaiko testigantzak jaso dituzte ikusentzunezkoan: “Ahalegindu gara hainbat belaunalditako lekukoak topatzen, modu batera edo bestera ibaiarekin harreman estua izan dutenak. Ikuspegi orokor bat eman nahi guelako”, dio Tere

Guenetxeak. Guztira, hogeita bat herritar elkarrizketatu dituzte.

**Plazentziatarren bizimoduaren ardatza**

Ibaian egiten ziren jarduera ugariren berri jaso dute ordubete pasatxoko ikusentzunezkoan; besteak beste:



Ikusentzunezkoa osatzeko elkarrizketatu dituzten herritarrak.

arrantza kontuak, txanalak, bainuak eta igeriketa, erropa garbitzea (labaderoak), jolasak (zirkoa, paitta harrapatzea, kukaina...), errota eta zentralak (Sologoen eta Malmero) aipatu dituzte. Leire Ginearen esanetan, “guzti horrek erakusten du, garai batean, plazentziatarrek ibaiarekin zuten harremana oso estua zela. Ibaia plazentziatarren bizimoduaren ardatza zela”.

#### Hizkuntza ondare aberatsa

Ibaiaren inguruko kontuak izendatzeko hizkuntza ondare aberatsa ere aurkitu dute Guenetxeak eta Gineak. Batetik, leku-izenen sorta ugaria: Hirukurutzeta, Igarate, Olako Osiña, Maxpe, Maala, Kolarra, Zubipea, Ugarrezia, Igareta... Eta bestetik, igeriketa, arrantza edo urari lotutako jarduerak eta objektuak izendatzeko berba-zerrenda luzea: “amamurgil”, “tapakua”, “alatian”, “urakapin”, “arrazixa”... Hurrenez hurren, Javier Elorzak ibaiaren toponimiaren inguruan eta Ramiro Larrañagak Plazentziako berben gainean egindako azterlanak izan dituzte iturri nagusi.

---

#### PROIEKZIOA

Uztailak 13, barikua  
19:00ean  
Antzokian  
Sarrera debalde

**“Errekia zan oso aberatsa eta zeguan danetikan: aingirak, barbuak, loinak, eskailuak, sarbuak, kangrejuak... Nik jentia igarixan ezagutu izan dot eta zubittikan peskan, barbutan”**

FEDERIKO EGUREN

**“Plazentzian ibaia inportantia zan. Guk ez geunkan beste ezer jolaserako, oin ez daukena. Oingo umiak asko jakingo dabe baina neri pena emoten doste”**

BENITA GALARRAGA

**“Akordau jakun zirkua egittia Islan (Gabolatsen): “Circo estrella”. Don Luis Calonge be etorri zan behin”**

ATXITO

**“Harpasuak egoten ziran labanak eta jausten zanari kantatzen jakon: Amamurgil zeinendako? Maritxundako!”**

TXARO LETE



### Txanela

Fausto Aristiren txanela da argazkian ageri dena (Maala inguruan), Fausto bera eta bere senideak barruan dituela. Egurrezko ontzia zen, ibaian nabigatu eta arrantza egiteko erabiltzen zutena. Andres Egurenek ere bazuen beste bat, Igarateko presan. Iturria: Fausto Aristi.



### Ibai garbia

XX. Mende hasieran ateratako argazkia da. Ibai ederra ageri da bertan, karkaba parean zegoen bere hondartzatxo eta guzti. Artean, zutik zegoen Santa Ana kaleko konbentua eta ortuak ere baziren fruta arbolaz beteta. Iturria: Kontrargi.



### Harpasoak

Harri zapal handiak ziren, zubiaren faltan ibaia alde batetik bestera igarotzeko ubidean ezartzen zituztenak. Errekaldekoak (argazkikoak) eta Gabolazkoak ziren erabilienak. Azken horiek izan ziren galtzen azkenak, 60ko hamarkada aldera, ibaia dragatzeko lanak egin zituztenean desagertu ziren. Iturria: Soraluze Iruditan.



### Jolaslekua

Ibaia umeen ohiko jolaslekua zen. Oso txikitatik joaten ziren bertara peskan, igerian edo jolasean egitera. Adin bakoitzerako guneak eta igerilekuak ondo zehaztuta zeuden, arrisku handiagoa edo txikiagoa zutenak. Oro har, ibaia gune seguru eta jostagarri moduan ikusten zuten orduan. Iturria: Angel Bolumburu.



Leire Ginea eta Tere Guenetxea.

## “Plazentzian kultura eta bizimodu oso bat zegoen ibaiaren inguruan”

Tere Guenetxeak eta Leire Gineak bi urte inguru eman dituzte testigantza bilduma osatu eta antolatzen.

Memoria kolektiboa gordetzea garrantzitsutzat dute, etorkizunean ibaia lehengoratzeko bidean.

### **Nondik sortu zen dokumentala egiteko asmoa?**

Alkarrekineko Mendiak eta Ibaiak lan-taldean somatu zen beharra herriko espazio naturalen erabilera herritarrengana gerturatzeko eta hainbat proposamen egin ziren: Mutxaneko potzura bidea egitea, dolmenen ibilbidea indartu eta indusketak egitea... Proposamen horien arteko bat izan zen ibaiaren inguruko lekukotasunak batzea.

### **Zein izan da helburua?**

Ibaia oso garrantzitsua izan da plaentziatarrendako, baina denborarekin garrantzi hori galtzen joan da. Pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela memoria kolektibo hori, ahal dugun neurrian behintzat, jaso eta

## “Ibaiaren gaineko memoria kolektiboa jaso eta zabaldu nahi izan dugu”

zabaltzea, batez ere gazteen artean. Ibaia zer izan zen ezagutzea etorkizunean, ibaia berriz aisialdi gune eta espazio natural moduan berreskuratzeko. Hau, bide horretan emandako pauso bat besterik ez da.

### **Zer da testigantzetan jaso duzuen?**

Bazela kultura eta bizimodu oso bat ibaiaren inguruan ardatzen zena. Plazentzia ibaiari begira bizi zen herria zen. Ibaian egiten zuten arrantza, txaneletan nabigatzen zuten, labaderoetan garbitzen zuten arropa, ibaiko uretan bainatu eta garbitzen ziren, jolas egiten zuten jaietan kukainarekin edo traineruekin, errota eta elektra-

etxeetan baliatzen zuten uraren indarra...

### **Ezagutzen zenuen guzti hori?**

(Tere) Ez. Ni oso gutxi joan nintzen ibaira, uste dut zela emakumeok ez ginelako horrenbeste joaten. Ostera, nire adineko mutilek kontatzen dute euredako munduko ur parkerik onena zela ibaia.

Testigantzetan kontaktu dute umetan emakumezkoak ere joaten zirela ibaira, baina, gero, nagusitu ahala, labaderoetara mugatzen zela harremana. Hori bai, labaderoak emakumeen biltoki indartsuak ziren eta funtzio soziala betetzen zuten.

### **50eko hamarkadatik aurrera aldatu zen dena...**

Bai. Lantegiak hasi ziren sustantzia oso toxikoak isurtzen eta, ondorioz, ibaia gero eta gehiago zikindu zen eta poliki-poliki jendeak ibaira joateari laga zion, arriskutsua bihurtu zelako. Harrezkero, ibaiari bizkarra emanda bizi izan gara, oraintsu arte.

### **Orain piraguei begira egoten gara!**

Bai, eta gaztetxoan artean sekulako arrakasta dute gainera. Orain dela urte batzuetatik hona ibaiak hobera egin du, araztegiak eraiki dira eta ur zikin gehienak bideratu. Urak garbiago etorri direnean arrainak ugaritu egin dira eta umeak ere ikusi ditugu piraguetan, baina, zoritxarrez, otsaileko zianuro isuriak erakutsi du zela gauden oraindik.

### **Zuen ustez zer neurri hartu behar litzateke etorkizunean?**

Lehenik eta behin bideratzeko falta diren ur zikinak bideratu behar lirateke: kiroldegiaren pareko ur zikinen desagunea, Galvanizados Arrate... Eta isuriren bat dagoenean, jarrera gogorragoak hartu, bai herritarren aldetik eta baita udalaren aldetik ere. Gaur egun eskandalu bat da halako isuriak gertatzen jarraitzea eta zigorrak barik gelditzea.

Ibaia da Plazentziako kalerik zabalena, herriaren erdi erditik pasatzen dena. Ez da ona horri bizkarra emanda bizitzea.

# Soraluzetarren ahaleginak sari bilakatuta

Ekaina hilabete oparoa izan da kirol arloan soraluzetar askorendako. Denboraldi amaierak tarteko, txapelketak ugaritu egiten dira, eta halakoek agerian uzten dute kirolariek urtean egindako lanaren nolokotasuna. Herrikideen kasuan, lan ona egin dutela diote emaitzek. Eta askotariko kiroletan, gainera.

Ekainaren 2an hasi ziren Soraluzeko kirolariak garaipenak eskuratzen. Kasu horretan, futbolaren eskutik. Asteburu hartan, Haroko (Errioxa) Torneo Naranjan txapelkun izan zen Soraluze Futbol Taldeko benjamin mailako bigarren urteko taldea. 21 talderen arteko txapelketa hartan egun osoko jarduna izan zuten Sorakoek zapatuan, lau partidu jokatu zituzten-eta. Finalean bina berdinduta, penaltiei esker gailendu zen etxeko taldea. Gainera, finala zaila izan zen, Haroko bertako Jarrero taldea izan zuten-eta aurrez aurre soraluzetarrek.

## Atxotegi birritan txapeldun

Bestalde, pilotak ere eman ditu fruituak ekainean. Izan ere, Aitor Atxotegi eta Ibai Bolinaga Soraluze Pilota Elkarteko pilotariak dira Debarreko Pilota Txapelketako aurtengo txapeldunak. Arrasaten jokatu zuten finala, ekainaren 16an, Bergarako bikotearen kontra eta 22-6 irabazi zuten partidua. Hori gutxi ez, eta Aitor Atxotegiri eman zioten partiduko pilotaririk onenaren saria. "Partidu oso ona" egin zutela kontatu zuen Atxotegik. Eta, oro har, "oso gustura" daude Soraluzeko taldekideak erdietsitakoarekin. Eta ez da gutxiagorako. Finalean "partidu ona" egiteaz aparte, bosgarren urtez jarraian ekarri dute Debarroko Pilota Txapelketako garaikur nagusia Soraluzera.

**Onintza Ibartzabal txapeldun-orde** Bergarako Burdinola hockey patinetako taldearekin dihardu



Sorako benjamin mailako taldea Haron.



Onintza Ibartzabal.



Markel Oregi garaikurra jasotzen.

jokatzen Onintza Ibartzabal soraluzetarrak. Taldeak aurtengo denboraldian egin du debuta, eta oso pozik dira lortutako emaitzekin: Euskadiko Kopan eta Ligan, bietan ala bietan, bigarren sailkatu dira. Soraluzeko kirolari gaztea oso pozik da emaitzarekin, Burdinola taldean daraman urte eta erdian garapen handia egin du, gainera, kirolari moduan 13 urteko gazteak. Patinak eta patinatzea maite, Ibartzabalek etorkizuna nahiko luke patinajearekin lotzea, izotzekoarekin zein patinekoarekin.

Oraingoz, datorren denboraldiari begira jarrita dago. Hori bai, hor ere, hobetzeko eta aurrera egiteko asmo



Ibai Bolinaga eta Aitor Atxotegi.



Ander Sanchez ezkerretik lehena.



Ion Varela kideekin garaipena ospatzen.

sendoekin. Izan ere, hockey patinen taldearekin datorren urtean Gaztela Leongo ligaxka ere jokatu nahi dute, Euskadiko Ligaz eta Kopaz aparte. Gainera, aurtien Ibartzabal entrenatzen ibili da izotzean ere, Gasteizko izotz hockeyko Sumendi taldekoekin. Hori horrela, datorren urtean federatu mailan, Espainiako izotz hockeyan jokatzen ahaleginduko nahi du.

Bestalde, eta urtebete eta erdian Onintza Ibartzabalek eta bereziki eskaintzen duen aukera balioan jarri nahi ditu Iraitz Ibartzabalek, Onintzaren aitak. Kirol mota horretan talde eta pertsona gutxiago lehiatzen direnez, bertan

dihardutenendako aukerak handitu egiten dira-eta, goi mailara iritsi eta jarduteko.

### Judoa ere podiumean

Eta besteak beste, judoak ere ekarri ditu albiste onak, izan ere, pasa berri den asteburuan, ekainaren 23an, Ander Sanchezek bigarren egina zuen Ondarroan, Soroluzeko Ukaldi Judo Taldearekin lehiatuta. 120 judoka elkartu ziren tatami gainean, Artibai Judo Taldeak antolatutako benjamin-aurreko, benjamin eta alebin mailako topaketetan. Soroluzeko judoka gaztea "pozik" dago emaitzarekin. 7 urte zituenetik dabil judo praktikatzen, eta aurrera doa kirol horretan. Dagoeneko laranja-berde gerrikoa eskuratuta du. Eta jarraitzeko asmoa duela kontatu du Sanchez gazteak.

### Taldeko azkarrena

Bestalde, txirrindularitzan Markel Oregi ere saridun izan da ekainean. Hain justu ere, ekainaren 17an, Bergaran jokatu zen San Antonio Sarian soroluzetarra izan zen Bolintxo Okindegia taldeko azkarrena. Lehen sailkatuarengandik 41 segundora helmugaratu zen txirrindulari gaztea. Sei kilometroko luzera zuen Gipuzkoako kadete mailako bananakako erlojupekoan erdietsi zuen lorpena Oregik.

### Maila bat gorago

Eta futbolak, baita ere, kasu honetan Durango aldekoak albiste pozgarriak utzi ditu Soroluzen. Izan ere, Ion Varela soroluzetarra taldekidea da Durangoko Kulturala futbol taldean, eta talde harekin Hirugarren Mailako liga txapelketa maizatzean eskuratu ondoren, Bigarren B Mailara igotzeko kanporaketa fasea jokatu du ekainean, eta hura ere irabazi du talde bizkaitarrak. Hori horrela, datorren urteko denboraldia Bigarren B Mailan jokatzeke aukera izango du Varela soroluzetarrak.

# 100 bat lagun espero dituzte Iñaki Ruiz Mendi Lasterketan



Korrikalariak Iñaki Ruizen iazko edizioan.

Uztailaren 8an, San Andresko jaien bigarren egunean egingo da zazpigarren urtez Iñaki Ruiz Mendi Lasterketa. 100 bat korrikalari espero dituzte antolatzaileek: "Urteroko antzeratsu, ez da jakiten sekula, azken orduan jende nahiko apuntatzen delako, baina uste dut 100en bueltan ibiliko garela. Momentuz, izena eman dute 29 lagunek, eta horietatik sei dira neskak, tamalez, nesken artean oraingoz ez da Soroluzekorik animatu. Hala ere, ikusten dugu nesken parte-hartzea urtetik urtera goa doala", hori adierazi du Koldo Azkorbebeitiak, lasterketaren antolatzaile den Soroluzeko Mugituz! ekimeneko kideetako batek.

### Hiru ordu lasterketa bukatzeko

Beranduen jota 09:30erako San Andresen egon beharko dute korrikalariak, ze 10:00etan abiatuko da lasterketa. 21 kilometroko ibilbidea izango dute aurrez aurre lehiakideek, mendian gora eta behera, tartean mendi-gaineko paraje eta tontor esanguratsuenak zeharkatuz. Hori bai, Azkorbebeitiak gogorarazi du Atxolinen bi orduko denbora dagoela bertatik pasatzeko,

"hau da, Atxolinen 12:00etarako pasatzen ez dena goitik behera bidaltzen dugu ze bestela lasterketa larregi luzatuko litzateke. Asko jota hiru ordu daude lasterketa gauzatzeko".

### Boluntario ugari

Edozein modutan, korrikalariak ez dira bakarrik egongo erronkari aurre egiteko. Bidea seinaleztatzen eta bestelakoetan 30-40 lagunek jardungo du lanean. "San Andres elkarteak ere laguntzen digu", dio Azkorbebeitiak, eta, jakina, bidean ere izango dituzte zale eta lagun ugari, animatzen.

### Soroluzetarrak ere sarituko dituzte

Sariei dagokienez, lehen hiru postuetan sailkatzen diren neskei eta mutili eta sailkatzen den Soroluzeko lehen mutilari eta lehen neskari sari bana emango diete. "Sariak ez dira ekonomikoak, gastronomikoak, baizik. Lehenengoendako Txurruka jatetxean bi lagunendako bazkaria, eta bigarrenendako, hirugarrendako eta Soroluzekoendako, ardoa eta gazta", esplikatu du Koldo Azkorbebeitiak.

# Iturrian zer dago? Musika-zikloa uztailean



Jon Basauri, Ane Ugalde, Domentx Uzin eta Arianne Unamuno, Ventos de Saudadeko kideak.

Uztailean ekimen berria egingo dute Soroluzen: *Iturrian zer dago?* izenburua duen musika-zikloa. Aurtengoa estreinaldi-proba izango da, bi hitzordurekin osatu dute berau, eta Mikel Leunda udal teknikariak azaldu duenez, “funtzionatuko balu, egonkortu egingo genuke”.

## Musika frantsesaren antologia

Hori horrela, uztailearen 7an eta 21ean egin dituzte hitzorduak. Uztailearen 7an, 20:00tan, *Paddam* bikote donostiarrak (Iñaki Miguel, kitarrarekin eta pianoarekin eta Estefania S. Wulfe ahotsa) *Le Recital du chanson* izenburuarekin musika frantsearen antologia egingo du (Edith Piaf, Marie Laforêt, Joe Dassin... kantarien abestiak).

## Fadoen goxotasuna

Uztailearen 21ean, berriz, 20:00etan, etxeko talde batek eskainiko du kontzertua: Ventos de Saudade. Arianne Unamunok, Domentx Uzin, Ane Ugalde eta Jon Basaurik

osatatuko laukoteak, kasu honetan, musika portugesa izango dute oinarri, eta fadoen goxotasuna partekatuko dute ikusleekin.

## Proba modura

Musika-zikloa antolatzeako arrazoiak azaldu ditu udal teknikariak: “ikasturtea amaitzearekin batera programazioa asko jaisten da Soroluzen, harik eta herriko jaiak iritsi arte, bai Udalak antolatu duena eta baita gainontzeko eragileek antolatzen dutena ere. San Andresko jaietz aparte, herriko jaiak bitartean ez da beste ezer egoten. Hori aintzat hartuta Alkarrekin plan estrategikoan kulturaz hausnartzen ibili zen taldean irten zen halako zer edo zer egiteko ideia; orduan aipatu zen hainbat leku erabili behar zirela kultura ekimenak egiteko eta Plaza Berriak baduela enkantu berezia. Hortaz, asmoa da uztailean formatu txikiko musika kontzertuak antolatzea bertan, iturria oholta bihurtuz. Sasoi batean berau zen herriko ekintza asko antolatzen zen tokia”.

## Konponketak, musika-eskolan

Soroluzeko Musika Eskolako langileak eta ikasleak oporretan daudela aprobetxatuko du Soroluzeko Udalak datozen asteetan bertan konponketak egiteko. Batetik, 63.237,66 euro inbertituta (BEZa barne) galdara berria jarriko du. Tarte enpresak egingo ditu lanok.

Bestetik, sistema elektriko zaharberritu egingo du. Lan horiek Soroluzeko Laibi enpresak egingo ditu. Izan ere, ekainaren 20an eman zuen amaitutzat aurtengo ikasturtea Soroluzeko Musika Eskolako, ikasturte amaierako kontzertuarekin.

## Ikasturte berria

Dagoeneko iragarrita daude datorren ikasturterako Musika Tailerrei eta Musika Hizkuntzari dagozkien ordutegiak eta irailaren 5ean banatuko dituzte instrumentuak eta talde instrumentalak. Ondoren, irailaren 10ean abiaraziko dute 2018-2019 ikasturtea.

## Denboraldi amaierako kontzertua

Bihar, zapatuan, Ezoziko Ama Abesbatzak denboraldi amaierako kontzertua eskainiko du, Aitor Garitano zuzendariarekin eskainiko duen lehena. 20:00etan hasiko da, parrokiaren, eta 11 kantuz osatutako errepertorioa taularatuko dute. Kantu herrikoiak eta modernoak tartekatuko dituzte, Nagore Sanz musikari soroluzetarra pianoan lagun dutela.



**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, herriburginak, ogitariekak, raitiak, pizzak, gaztaria...

Erkarguak agian dira  
Tel. 943 75 17 88



**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure genako hortz klinika, zure portuko teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema bertakatu erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 beheha  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpeh@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenerdik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



**TXURRUKA JATETXEA**

Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetako menu berezia  
Karta

www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81



**AURREZTU ENERGIA**

Berota ura eguzki izpiekin edo oliarekin

fontaneria  
**SAN ANDRES**  
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



**OSUMA basolanak**

Itiug. 635 71 34 08

baso garbiketarak eta entresakak zortzi lagunekoko taldea zure zerbitzura



Jaietaren plazarrera, bertatik bertara

**Batzoki**

eguneko menua, antzinarrietan karta eta raitiak

eguneko menua, herriburginak, entzuga herrikoak

Emilia eta lagun onak bezalakoak

Erretabak 943 75 20 55




**Ramon Lizarazu**

ERRABAL KALIA, 24  
TEL. 943 75 91 30

Elizburuko kateak  
Euskal Oleria



**MABEL IZABAI DEGIA**

Biarentzako keratina tratamendua  
Depilazioa  
Re-austriarik gabeko permanentea  
Makilajua  
Manikura  
entzinarrietan  
Solariuma

Erretab 1  
Tel.: 943 75 14 89



**Hortz klinika**

27 urteko esperientzia

Javier Alamo Medik. Odontologikoa K.2. 46.001.504  
Kofia Gurrilho Odontologoa K.2. 46.001.546

Itxak, ginko anekia, odontologia orokorra, griesa trinko eta mugikorra, odontopediatria, ortodontia, implantak, estetikoa...

Enbatal 1 - Tel.: 943 75 10 13



**IZZEGUIRRE Igelberritza**

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igelberritza

30 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 967 289




**KLB6**

Kalebarren 6  
943 67 71 28  
Mutila eta nesken modaketa

Open Jeans  
MILANO  
Maison Scotch  
VERO MODA

!SOLID  
New Balance



**Kontulan**  
aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta, zitapenak • Administrazioa lanak  
Tratamendu burokratikoak • Lan-erleko aholkularitza  
Erregimen kontabilitate/leakuntza • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. ed. 20190 Santesteban  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



**MENDIZABAL okindegia**  
Ogla • Prentsa • Gosariak

Astelehenerdik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



**BOLIA**  
TABERNA

Pirxoak, arinak, kordintzak  
Gazte-giroko festa




Euskalzaletasunaren alde:



# Ana Maria Bello eta Antonio Pichardo

*Bi andaluziar eta katu bat munduan zehar*



“Bi pertsona eta katu bat munduan zehar bidaian” horixe da Ana Maria Bello eta Antonio Pichardoren furgonetan jartzen duena. 2016ko abuztuan ateratzen zirela Huelvatik eta bi urte eman dituzte Europan zehar bidaian. Etzerako bidean

geldialditxoak egin dute Sorraluzen.

**Zein herrialde bisitatu dituzte?**

Espainia gurutzatu dugu eta izan gara; Andorran, Frantzia, Suitza, Alemanian, Txekiar Errepublikan, Austriar, Hungria, Esloboan, Kroazian, Bosnian, Montenegro, Serbian, Bulgarian, Grezian, Mazedonian eta Eslobakian.

**Zein izan da gehien inpaktatu zaituzten lekua?**

Katedralak eta gazteluak politikak dira baina benetan markatzen zaituena jendea da.

Bosnia, Esloboan, Grezia... Lekua loturik dago bertako jendeari.

Hegoalderantz joan garen heinean, Balkanetarantz, jendearen harrera asko hobetu da; jendearen gizatasuna. Zenbat eta txiroagoa izan herrialdea, orduan eta hobea da jendea.

**Zer ikasi duzue bidaian?**

Konturatu gara gelditua geundenean konturatu ez ginen gauza askorekin. Zela jaten dugun, zela tratatzen dugun jendea, bizitzeko zer behar dugun... Ikusi dugu,

**“Gero eta txiroagoa izan herrialdea, orduan eta hobea da jendea”**

adibidez, Greziako supermerkatuetan zelako prezioak dauden. Alemaniako produktu berberak daude baina %30 garestiago, eta greziarrek 300 euroko soldadak dituzte. Greziarrei hori egin badiete, zer ez digute egingo guri.


**Nolatan Sorraluzen?**

Bidaian ateratzen ginenean, sorraluzetar batek gonbidatu egin gintuen bere etxera Interneteko foro batean, eta zazpi egun egin genituen bertan (Argarate baserrian). Eta, orain, bueltan goazela, berriz etorri gara bisitan.

Furgonetan baditugu hiru edalontzi plastikozkoak, Sorraluzeko jaietakoak, eta gonbidatuekin zeozer hartu izan dugunean ateratzen ditugu. Beti eman dute berbetarako gaia.

**Etorkizunean bidaian jarraitzeko asmoa duzue?**


Bai. Orain Huelvara bueltatuko gara eta furgoneta moldatuko dugu bidaian jarraitzeko. Gure asmoa da laster Ameriketara zehar bidaiatzea.



1. Argarate baserrian.
2. Galizako kostaldean, A Coruña.
3. Pirinioetan, Ana gosaltzen.
4. Antonio eta Robi (katua) furgonetan.

Bidaia kronikak: @FurgoTravel

# Amaia Amor, eskulangintza pasio



Narrua lehengai modura hartuta, 18 urterekin bitxiak, eskumuturrekoak, lepokoak, eraztunak... egiten hasi zenetik, marka propioa izateraino iritsi da Amaia Amor (Soraluze, 1986) artisaua. "Hasieran Hamaly Love marka erabiltzen nuen, lagun batzuek horrela esaten zidatelako, eta Facebook-en horrela daukat. Gero aitaren lagun batek metalezko zigilua egin zidan Amaia Amor jartzen zuena, eta horrekin geratu naiz".

Amaia Amor markarekin eskaintzen dituen produktuak gero eta ugariagoak dira, hauxe azaldu digu: "Bitxiak egiten hasi, eta urte batzuetara lagun artisau batekin hasi nintzen boltoak, motxilak, gerrikoak... egiten, eta produktu sorta zabaltzen. Orduan den-dena eskuz egiten nuen. Baina nire produktuak azoketan ipintzen hasi eta bi urtera ikusi nuen lan handiegia zela eskuz egiteko, eta erabaki nuen hartzea bigarren eskuko makina, narrua jostekoa. Makinari neurria hartzen joan nintzen, eta aurrean hartu dut tela josteko beste makina bat, boltoei barrutik tela josteko. Gero, 2015-2016an hasi nintzen sandalia batzuk egiten, ondoren eskatu nituen espartuzko zolak, eta, orain, alpargatak ere egiten ditut.

Hori bai, orain bueltatu naiz eskuz jostera, ze horiek eskuz egiten ditut".

Aipatutakoez aparte, "eta gutxiago bada ere, eskaladarako magnesio poltsak, umeen karrorako poltsak, nezeserrak, eta ezkontzetarako osagarriak egiten ditut. Orain bik, adibidez, zapaten argazkiak bidali eta zela jantzita doazen jakinda, bie ezkontza banatarako boltoak egingo dizkiet", horixe kontatu digu.

Egindako produktuak saltzeko ohiko bideak eta berriagoak baliatzen ditu, azokez aparte: "Askok enkarguak egiten dizkirate, eta kanpora Instagrametik bidaltzen dut: Bartzelona, Madril, Kanariar Uharteak... Eta ingurura. Azken enkargua Eibartik jaso nuen, adibidez. Gainera, aparte KLB saltokian ipintzen ditut noizean behin gauzak, eta web-orria ere banabil prestatzen".

Oraingoz, ogibidea baino pasioa da Amorrerako eskulangintza, eta horrela gustura dagoela dio: "Nire pasioa da. Berez, Elizpe klinikan dihardut lanean. Erizain laguntzailea naiz eta oso gustura nabil. Gustatuko litzaidake eskulangintzari esker bizitzea noizbait, baina orain nagoen modura gustura nago, Elizpek lan finkoa eskaintzen dit eta hori ere asko eskertzen da".

1. Amaia Amor azokako saltokian.
2. Espartuzko eta narruzko alpargatak.
3. Amaia Amor narrua josten.
4. Amorrekin egindako alpargatak.

## Harremanetarako:

665252540

amaia\_amor (Instagram)  
Hamaly Love (Facebook)



# Biziraupena jokoan

Soraluzeko Danborrada urte luzez izan da herriko jaietako ekitaldi esanguratsuenetako bat. Ehunka herritarrek parte hartu izan dute eta Santiago gaueko ikuskizun nagusia da. Hainbat eten izanda ere, 70eko hamarkadatik herriko nortasunaren ikurretako bat bilakatu da askorendako, herritik eta herriarendako egindakoa.

ARGAZKIAK: **FERNAN OREGI ETA UBANE MADERA** TESTUA: **UBANE MADERA**

Gastronomia elkarteek hasieran, Beti Prest Aisialdi Taldeak ondoren eta azken 12 urteotan Danborradako Batzordeak dihardu berau antolatzen eta bultzatzen. Orain, baina, herritar berriak erakartzeko unea iritsi dela uste dute batzordekoek. “Ideia berriak” behar dituztela diote, “jende berria; akaso ez batzorde osoa aldatzeko eta berritzeko, baina bai batzuei txanda emateko”.

Solaskide izan dira Ana Maiztegi, Inma Matute, Roberto de la Rosa eta Marga Cabezon. Euren (eta batzordeko gainerako kideen) lanari esker lortu, konpondu eta margotu duten lokalean (merkatu-plazaren goiko pisuan) harro erakutsi dute bertan gordetzen duten material ia guztia: danborrak, jantziak, kanoia...

Eta harro kontatu dute gaur egun danborrada antolatzeak ez dakarrela horrenbesteko lanik eta denbora

eman beharrik. Matuteren hitzetan “orain danborrada antolatzea askoz ere errazagoa da”. Cabezonek zera gaineratu du: “Lehen urte osoan zehar ibiltzen ginen lanean, hilerio batzar bat egiten genuen. Orain ekainean hasten gara. Eta, lanak banatuta ditugu, bakoitzak bere zereginak ditu: jantzien arduraduna, musikaren arduraduna, Udalarekin harremanak izatekoa... horrela banatuta lanak, bakoitzak bere egitekoak egin behar ditu, besterik ez”. Eta Ana Maitegik zera azaldu du: “Egin beharreko denak lotuta ditugu. Oso ondo bideratuta dago guztia. Ekainean parte-hartzaileei gutunak bidalita, entseguak egiten ditugu hilabete lehenago, 8 bat entsegu (martitzenetan eta eguenetan 20:00etatik 21:00etara, frontoian). Ekainaren 26an hasi gara”. Hori horrela izanda, Danborradako Batzordeko kideek esplikatu dute



## “Ikusleek baino hobeto pasatzen dugu danborradan parte hartzen dugun kideok”

danborradak ekarpen berriak eta freskoak behar dituela eta parte-hartzeari dagokionez, inplikazio errazagoa.

### Ehun lagun pasa

Izan ere, ehunka herritar mugitzen ditu Nagusien Danborradak. 2013. urtetik 116-128 bat herritarrek parte hartu izan du, batez beste. Iaz izan zuen parte-hartzerik txikiena, 111 lagunek parte hartu zuen, eta, aurten “beldur” apur bat badute, jai-egunak aste barruan tokatzen direlako, eta hori “igarri egiten” delako.

Kontua da beti ez zaiela erraza egiten herritarrek danborradan parte hartzeri animatzea: “Danborrada ekintza parte-hartzailea da, ez da pasiboa. Herritarrek parte hartzeko ekitaldia da, herritarrek ondo pasatzeko. 100-150 bat lagun urtero lortzen ditugu. Horrek ematen dio danborradari eta Soroluzeko jaiei duten nortasun berezia, herritarren parte-hartzeak. Guri danborradan parte hartzea izugarri gustatzen zaigu baina bereziki kostatzen zaigu jende gaztea erakartzea”. Hori bai, segituan berretsi dute eurek pasatzen dutela ondoen, “ikusleek baino hobeto, ez izan zalantzarik!” diote. “Jendeak primeran pasatzen du. Ibilbidean mokadutxoa ere izaten dugu. Eta danborrada bukatzean, jende guztiak esaten du: datorren urtean berriro!”, berretsi du Roberto de la Rosak.

Ana Maiztegi, Marga Cabezon, Inma Matute eta Roberto de la Rosa Danborradako Batzordearen lokalean.

Nagusien Danborrada Plaza Zaharrean ikuskizuna egiten.

Danborradaren ezaugarriak dagokienez, bederatzi konpainiek osatzen dute:

Perkusioa jotzen lau konpainia (gudariak eta sukaldariak): bi danborrak jotzen eta beste bi barrilak jotzen. Eta beste bost konpainia daude gremioak irudikatzen: arrantzaleak, kajeeruak, gastadoriak, ehiztariak, aparejeruak, kanoinistak, agintariak, mikeleteak eta kantinerak. “Kantinerak dira osatzea gehien kostatzen den konpainia”, diote. Zuzendaria Unai Larreategi da, “bera da onena. Urte asko daramatza”, hori diote hirurek. Eta banderadunak ere baditu Soroluzeko danborradak: Ikurrina eta Plazentziako bandera eramaten dituztenak. “Horrez aparte, Mendizabal okindegiak ogi erraldoia oparitzen digu eta urtetik urtera handitzen doan indioilarra (hirugiharrez beteta), berriz, Iñaki Etxabek. Iazkoak 21 kilo pisatu zituen. Musika jotzen, berriz, banda irteten da. “Nahia da musika banda izatea Soroluzekoa. Baina urtero Soroluzeko Musika Eskolako banda gero eta txikiagoa da, eta Bergararik ekartzen dituzte gero eta errefortzu gehiago. Uste dugu lehenengo Soroluzeko musikariei eman beharko litzaiekeela lehentasuna, baina gazteegiak direnez, eskatzen duguna da behar den moduan indartzea banda”, esplikatu du Ana Maiztegiak.

Urtero egun berean egiten du ikuskizuna danborradak: Santiago gauean. Txurruneken 23:00etan irten eta Zubi Nagusian 01:00etan bukatu. “Antzina Ezozibideko biribilguneraino igotzen ginen, baina nekeza zen aldapa karroarekin igotzea. Orain urte batzuk jatorrizko ibilbidea berreskuratu genuen, orain egiten duguna: Gabolatseko zubitik SAPARA, eta Iturburutik gora, bidean geldiuneak eginez: Plaza Zaharrean eta Zubi Nagusian eta Errekalden, Atxurin (egoitzakoendako), Amutxastegin, Gabolatsen eta Iturbururik”.

Kantuei dagokienez, “bizpahiru urtetik behin berriak sartzen ditugu; azkena *Pantxika*. Eta *Pantxika* da, hain zuzen, orain gurekin irteten den astoa. Eibartarra da, baina Soroluzen bizi da, Zerrejonen baserrian”.

Hortxe, bada, danborradaren erretratua bi printzatan. Berau ikusten segitu nahi izanez gero, laguntasun handiagoa eman beharko zaio. “Ez dugu danborrada beste barik utzi nahi, umeen danborradarekin gertatu den moduan, desagertu egingo zelako. Ze umeena desagertu zen parte hartzeko umeak falta zirelako. Eta halako kontuetan parte hartzeko zelanbaiteko inplikazioa behar da, sakrifizio txikia, bizitzan edozein kontutan moduan... eta badirudi umeak eta bereziki, gurasoak, ez daudela horretarako gertu. Edozertarako behar da sakrifizioa. Eta orain, gure taldean berrikuntza behar da, batzuk azken urtea egingo dute antolaketan eta herritar berririk etorri ezean, umeenarekin gertatutakoa gerta daiteke Nagusien Danborradarekin ere”, azpimarratu dute batzordeko kideak.


ZORION AGURRAK



**Garazi Aizpurua**  
Ekainaren 12an, 15 urte. Zorionak eta muxu potolo bat! Etxekoan partez.



**Enara Garitano**  
Ekainaren 9an, 9 urte. Zorionak bihotza! Muxu bat familia guztiaren partez.




**Kattalin**  
Ekainaren 8an. Zorionak gure Kattalin! Etxeko guztion partetik muxu potolo bat.



**Zaloa Garcia Rodriguez**  
Ekainaren 24an 10urte. Zorionak politxori!! Txoko marrubizko muxuak!



**Unax Quintana**  
Ekainaren 24an, 5 urte. Zorionak Markelen eta gurasoen partetik!



**Paule eta Lide**  
Ekainaren 25ean eta uztailaren 1ean, 3 eta 8 urte. Zorionak! Segi holako alai. Asko maite zaituztegu!

KINTADAK



**1978. urtean jaiotakoak**

Maiatzean egin zuten bazkaria, Txurrukan.



**1968. urtean jaiotakoak**

Ekainean egin zuten bazkaria, Txurrukan.

**ARRANO**  
taberna  
Etoni eta gozto  
etxeko pintxoak  
Etxeburueta 6  
Telefonoa: 943 75 24 09

**JUAN MARI**  
ARRANDEGIA  
MERCATO PLAZA - 943 75 24 40  
Arria freskoa  
Elizero eramateko zerbitzua  
Bakarrak hartzen ditugu

**Soralezeko**  
Kooperatiba Elkartea  
1910etik ezabak  
Arrandegia, janaria,  
errapak, etxeko tresnak,  
etxera eramateko zerbitzua  
Astelehenetik ostiralera:  
09:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45  
Larunak: 09:30 - 13:00  
Tel.: 943 75 13 45

Sukalde  
tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetan  
menu berezia  
Karta  
Burduntzian  
erretako bidotsa  
Etxeko tritxoak  
Soufflés  
Tel.: 943 75 10 02

**Armendi**  
Jatetxea

**TATTOO**  
ESTUDIO  
ARTISTIKOA  
INIBIRU  
Bazkaria eta txokoa - 808 ALZULE (Gipuzkoa)  
Tel: 9437725403 www.inibiru.com

## ESKELAK



### Irati Unamuno Fernandez

Ekainaren 10an, 9 urte. Segi gure bizitzak alaitzen. Familia danan partez.



### M<sup>o</sup> Isabel Gil Muñoz

Uztailaren 1ean, 48 urte. Zorionak bitxita! Muxu bat etxekuen partez! Maite zaitugu!

#### HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

##### Hildakoak

Antonio Jose Mira Barreiros  
Santiago Fernandez de Arenaza  
Ariznabarreta

Benedicta Berraondo Lamarain

##### Jaiotakoak

Laia Axpe Jauregi

#### I. URTEURRENA

### Moises Alberdi Egaña



2017ko uztailaren 1ean hil zen Donostian 76 urte zituela.

Urtemeza uztailaren 28an izango da, arratsaldeko 19:00etan.

Sendia

Zoriontzeko, esker ona adierazteko,  
jaiotzen berri emateko...

**605 706 086**

(deitu edo bidali whatsapp-a)

**aldizkaria@pilpilean.com**

Segurua da | https://

## Gure enpresak ziurtatu, gure etorkizuna bermatzeko.

Enpresetan zibersegurtasunaren desafiari aurre egiteko lanean ari gara, Gipuzkoa izan dadin lurralde lehiakor bat, Europar desberdintasun txikiena duen lurraldeetako bat.

**ZIUR**  
INDUSTRIAL CYBER SECURITY  
CENTER-GIPUZKOA

**ETORKIZUNA ERAIKIZ**

# Iturrian zer dago?

musika kontzertuak plaza berrian



## PADAMM

Le recital de La Chanson

Sábado 7 de julio    Uztailak 7, larunbata  
A las 20:00h    20:00etan



## VENTOS DE SAUDADE

Sábado 21 de julio    Uztailak 21, larunbata  
A las 20:00h    20:00etan

Euria bada, kontzertuak Herri Antzokian egingo dira  
En caso de lluvia, los conciertos se trasladarán al Herri Antzokia



SORLUZEKO  
UDALA  
Kultura Batzordea